

ANAITASUNA

258. zenb.

1973.eko uztailaren 31koa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Idiak ere uztarriz loturik dabilta

Txit modan dago gure herri minduan nazioarteko zaletasunaren eta abertzaletasunaren arteko egokiezina. Dialektikaren metodoak dioenez, nahitanahiezkua omen* da, gauzak zernolakoak diren jakin ahal izateko, beroien alderdi orokor edo jeneralak batez, eta alderdi berezi edo partikularrak bestez, azterbidean ipintzea.

Goazen, este baterako, euskal langileriaren bi alderdi hoietaz ihardutera.

Alderdi orokor delakoa mundu osoko langile guztiei berdintsu datorkie, batez beste. Izan ere, sistema kapitalistaren pean daude gehienbat, eta, gainera, zenbait herri sozialistako politiká* kapitalistenaren kideko da; beraz, langile guztiei joera komun bat ezar dakieke. Joera komun bat diot, zeren* eta zapaltzaileek herri bakoitzean erabiltzen dituzten gobernakerak, zuhaitz bat izan daitekeen sistema baten adarrak baitira. Erroz gobernakera oro* berdina dela adierazi nahi nuen, arbola bereko adar denez; adarren arteko kidesuna erabatekoa* ez izan arren.

Beste herrietako langileekin ados datorren zer hori da, beraz, euskal langileriaren alderdi orokorra. Bideabar* aipa dezadan, lotura horri sozialista askok eta askok nazioarteko zaletasuna deritzatela.* Baina honetaz geroxeago mintzatuko baikara, utz dezagun oraingoz.

Ikus daitekeenez, orokor den alderdia, zuhaitz sistemaren adar orotan bila dezakegu, etorki berdinekoak direnez gero. Hoietariko adar sistema, Euskal Herrian dundun gobernakera berezia litzateke. Eta, nola oraino zuhaitz sistema besterik ez den ikusmiratu, azter dezagun orain, Euskal Herrian dugun adar sistema; beste alderdia, alderdi berezia alegia, bilatua izan dadin.

Zein ote da, bada, alderdi berezi hori, euskal langileria beste herrietako langileetarik bereizten eta diferentziatzen duenori? Neure kritzi apalean uste dut, horretaz jabetzeko, ez dagoela bide hoberik jasaten* dugun adar sistema bere hartan analizatzea baino. Bere hartan diot, zeren* eta soil soilik Euskal Herrira mugaturik, herri kontextu konkretuan murgildurik egin behar den lana baita.

Goian aipatu* sozialista hoiei gertatzen zaiena, dudarik gabe, zera da: zuhaitz sistema analizatzearekin aski* dutela, nonnahiko herritan dauden sozial, kulturak eta



ekonomi egiturak zeintzuk diren jakiteko. Hau, ordea, zehazkabetasun izugarri bat baino ez da; ziloji* ere ez, horretaz*; argiaren itxurarekin iluna baitakar.

Ahantzi* egin zaie beharbada, orokor edo unibertsal den aldetik bakarrik ez dela inoiz sistemarik analizatu behar, abstraktu denez. Bestalde, kapitalist sistema herri batean nahiz bestean funtsez* berbera dela esateari alfer deritzat;* funtsa bera ere aldakor delako, hain zuzen. Ez ote dakigu, bada, adar bat moztearekin zainak usteltzera hel daitezkeela. Gainera, adar sistema hoik* funtsez bat bera izanzen balira ere, garbiegi dakigu, herri guztietan ez dituztela modu bereko kontradizioak sortezten. Gure kasuan hain nabarmen den fenomeno hau, nola ezin daiteke kontutan har? Baldin eta iheskeriaren hildotik* ez bagara ari behintzat.

Idiak ere uztarriz...

Kontradizio orokor eta bereziaz inguraturik datza* herri oro. Eta, hau dela eta, honela zioen Sartrek unibertsalista hauei buruz: «No entienden la importancia de estudiar el carácter particular de la contradicción en la situación particular de cada pueblo concreto, para guiarnos en la práctica revolucionaria interior». Handik berehala beste hauxe dio: «Tampoco comprenden que la Universalidad de la contradicción reside precisamente en la Particularidad de la contradicción».

Rikardo ederki mintzatu zaigu bere idazlanetan, Euskal Herriaren historian gertatu zen etenduraz. Geroztik hemen gabiltza, ez buru eta ez hanka, noragabe. Eten zenaren mutur bat joan zitzaigun pikotara,* eta beste muturra biluzik dakusagu.* Eta, jakina, honela ezin bilintzi-balantzan ibil, zaharrari esku batez eta berriari beste heldurik; etenaren hutsunean amildurik* gaudeino.*

Argi dagoela dirudi, beraz, klase interesez gainera, oten ondoren galdu zèn historia baten lorketa ere ba dela cuskal langilearena. Halabeharrez, klase interesak ordietsi* nahi badira, jakin egin beharko da halaber,* nongo eta nolako baldintzetan lortu behar diren. Horra hor, langile orori dagozkion klase interesez gainera, nola historia jakin batekin topa gintezkeen langileriaren askatasun bidean. Herritasunean datzan* historia batekin, hain zuzen. Honez gero, delako alderdi berezia azken zehaztasun hauek eskainiko digutelakoan nago, besterik gabe.

Azken hitzez esan dezadan, unibertsal alderdia bere hartan soilik deus* ere ez dela, berezia den alderdia ere era berean deus ez den bezalaxe. Haatik,* ez dute balio-tasunik, harik eta uztarri batez lotu arte, edo eta bata bestean eta alderantziz murgiltzen ez direino.* Hala ere honek ez du adierazi nahi, betidanik bereizgarri direnez gero, bereizi behar ez direnik. Idiak ere uztarri batean doaz indar eragin batean, eta agian* bat zuri eta bestea beltz; ahaleginean, ordea, elkarren osagarri, zein bere bereiztasunekin.

Klasetasuna eta herritasuna bat bera direla aitortzen dutenak ere ba dira; bata bestearen ondorio eta kausa bezala. Elkarren albotik dabiltzanik ezin uka, idiak dabiltzan bezala. Baina nola aitor, bat bera direla? Baserritarra naiz, eta, idiak uztarriz loturik ibili arren, biek aho bate-tik jaten ez ditut sekula ere ikusi.

JOSE M. ODRIOZOLA

dakieke, **daitekioe**
daude, **dagoz**
dezadan, **daidan**
dezakegu, **daiegu**
dikute, **deuskue**

zaie, **jake**
zaigu, **jaku**
zioen, **inoan**, esaten zuen
zitzaigun, **jakun**

ANAITASUNA Bizkaia
Hamabosterokoa.

Zuzendari ordezkoi: Imanol Berriatua.

Bulegoa: Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

Imprimatzaile: AMADO, Mazarredo, 35 - Bilbao-10.

Moldatzaile: RALI, Particular de Costa, 12-14, 3.º - Bilbao-10.

XXI. urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.



Emakume, gizonetzko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren
gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonetzkoentzako
jantzi aukeratuenak, azken
modara eginak

HURI ZAHARRA

“Casco Viejo”

BILBO

Froga ezazu zuk zeuk

BYASS 96

ona dela izenez eta izanez



GONZALEZ BYASS

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

Askotan ezin izaten dut!

Gazteok ameslari izan ohi gara, eta pentsatu ohi dugu, gainera, beste jende oro* gu bezain ameslari dela.

Ikasle haroan, gehienok, titulu baten jabe egin ondoren, herriari izugarrizko zerbitzuak egiteko asmoak ditugu.

Guk, ikastolari gagozkioz, beste hainbeste pentsatu dugu noski. Amets asko eginik dugu (eta eginen ditugunak oraindik) gero ikastolan lanean hastean umeekin eginen ditugun lanetaz, berauei eman diezaikegun hezketa* sakon eta aurrerakoiak, gurasoen ikastolarekiko arduratzeaz, honek Euskal Herriari eman diezaikean laguntzaz, eta abar. Anitz* amets eder.

Uste izan dugu, gainera, haurrak oso eder eta maitagarriak direla, eta irakasle-andereñoak pertsona miragarri, langile, jator eta abar direla, beti herriaren zerbitzuan daudenak. Hau gehiegi bada ere, ontzeko zertxobait ibili da zenbait aldiz gure burutik.

Alderdi gogorraz ere pentsatu dugu zerbait, hots,* ikastolan lan asko egin beharko dela; baina hori... gero, ikastolara joandakoan. Betiko leloa. «Orain nire eginkizuna titulua ateratzea da, titulua behar baitira ikastoletan» esan dugu guztiok ikasle haroan. Preparatu, gero egingo gara: ikastolara sartu aurretik, hori bai, baina titulua eskuratu ondoren. Ondo preparatuko gara, bai Pedagogi eta Psikologi gaiak sakonduz, eta bai ikastoletakeko martxa orokorraz* jabetuz.

Hala ere, saiatu ginen zerbait egiten, genuen denbora apurra probetxatu guraz, baina batez ere herriarekiko ikusten genuen beto-beharrak justifikatu nahiz. Horregatik ez genuen lan askorik egin, ez baikenuen aski* denbora eta gero ikastolara joatean izanen baikenuen nahiko eta gehiegi.

Honela ibili gara bi, hiru urte luzez, amets zoragarri hauk* eginez, baina ezer guti arduratuz, ikastoletakeko egoera eta premiaz jabetzeko.

Eta orain hau da, nahi eta ez datorkigun galdora: Nola da beneran ikastolako errealitate hori?

Hau oso zaila da esaten. Batetik, buruan pentsatutako guztia adieraztea nkeza delako; eta bestetik, nire ikastolarekiko harremanean ez dudalako aski denbora, gauza horretaz sakon eta osoki jabetzeko. Gainera, beharbada, nire ikuspegia nahiko subjektiboa dake.*

Hala ere, zerbait esaten ausart* naiteke, eta ausartuko naiz: Ikastolako errealitatea ez dela inondik ere guk amestu du: in bezain eder eta gozoa, oso bestelakoa baizik, gogor eta aspergarria askotan, une alairik izaten badu ere.

Bati, ikastolara sartzean, ez bakarrik bere gelan, bai eta ikastola inguruko gauzetan ere, dena egin gabe dagoela iruditzen zaio (hau egia ez bada ere). Ez du ezer eginik ikusten, dena falta zaio, esku hutsik dago, ez daki nora jo, eta laguntzera ez datorkio inor.

Beste batek, preparazio eta esperientzia gehiago gabe ikastolara sartzean, gauzak beste era batetara aurkitu behar zituela uste du. Elkar lan gehiago, gauzak —mailaz maila— hobeto estrukturatuak, eta abar. Dena eginik egotea nahi du. Oso besterik da, ordea, oraindik egungo* errealitatea. Era honetan, une larriak iragan* behar izaten ditu, maiz* asko, andereño edo irakasle berriak. Bakarrik ezin du; onenean, bati eta besteri galdezka hasiko da, zer nahi duen ez dakiela gehienetan. Noski, nork bere gelan egiten duena —apur bat hobeagotua— esanen dio, bide horretaz laguntza gehiegirik eskaini gabe bestalde.

Besterik ezcan, bera ere bide bat eta beste ontseiatzen hasiko da, barkatatean babesturik. Bere esperientziak agertzearen nahiko beldur izanen da, besterenak jakiteko zaletasun amorratua badu ere. Honela bera ere besteren zulo berdinean eroriko* da, edo bestela arrisku ederrean dabil.

Gelako gauzez kanpo beste gai askotaz hitz egingo du bere lankideekin: gurasoez, haurrez, junten jokabideez, eta abarrez. Baina oso nekez planteatuko dira gauzok ekintza mailan; gehienetan hitzetan geldituko dira.

Zerbait egiteko egunik izendatzen bada, ez du inork egun horretarako ezer pentsatuko, kritzia freskoa izan dadin edo. Gainera, egun horretan hitz egiteko gogo gutti izanen du jendeak, beste egunetan asko badu ere, gehienak ustegabeko zereginetan katigatzen* ez badira hala ere.

Irakasleen aldetik arazoa honela badago, zer esanik ere ez gurasoen aldetik

Gauzak honela direlarik, oraindik geure artean burrukan gabiltza, beste zereginik ez bagenu bezala. Dirudienez, nork bere akatsak ikusten eta konpontzen saiatzea baino nahiago dugu besteari bereak aurpegira botatzea. Kanpotik dugu nahiko eragozpen, geure artean sortzen hasteko. Hauxe falta genuen, denok itotzeko.

Kontrazio teorikoetan hainbeste denbora galdu gabe, zergatik ez gara guraco eta irasle denok lanean hasten, ba dugu zereginik eta. Pedagoia dela, materiala dela, lanen koordinatzea dela, ba da zereginik; eta honetarako jendea behar da, zenbat eta gehiago hobea.

Hau da, bozpasei hilabeteren buruan ikastolaz nik hartu dudana kritzia. Inori zerbait esatekotan, ikastoletakeko gertatzen ari den jendearekin esanen nioke, batzuren batzuk lanean aurrez ikusi gabe eta gauzak ondo aztertu gabe, mesedez ez dadila inor ikastolan lanean hasi, niri gertatutakorik jazo* ez dakion. Oso erraza baita, halako aukera eginik.

L. AZKUNE

«Goizaldi» taldearen eskaintza

Euskal Herriko ikastolok, agur!

Eskutitz hau hartu duzuelarik, harritu bide* zaretz noski, baina ez zaitezte ikara.

GOIZALDI dantza taldea sortu zenetik, 25 urte iragan* dira. Urte muga hori aurrean haundikero ospatu nahiz, geure baitan* dugun asmo baten berri eman nahi dizuegu.

Garrantzi haundiko asmoa dela uste dugu, bai guretzat bai zuentzatzat, eta azken finean zuen eta gure den ikastolarentzat. Euskal Herri osoarentzat, alegia.*

Hona hemen gure asmoa:

«Ikastolen alde dirua biltzeko egiten diren jaialdietara joateko prest dago GOIZALDI».

Egiteko hori ahal denik ondoen betetzen saiatuko gara, euskaldun garen aldetik eta Euskal Herriaren alde.

Aldez aurretik ondotoxoa dakigu, ikastolaren diru problema ez dugula erabat* erabakiko; baina, dena dela, geure dantza, txistu, kantu eta euskal giroaz ahal dugun guztia egiteko prest gaude. Gure laguntza* txikia daiteke; baina, txiki eta guzti, ikastolaren alde borondate guztiz emana izango da.

Nahi duzuen arte. Zuek noiz deituko zain gaude.

Agur, eta ikus arte.

GOIZALDI
Victor Pradera, 39
Tel. 426600
Donostia

daude, dagoz	dizuegu, deutsuegu
diezaiekegu, deiskioegu	gaude, gagoz
diezaioke, deiskio	nioke, neuskio
dio, deutso	zait, jako



DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

AMALUR RESTAURANTA
KAFETEGI

Neure lantokitik

MITOLOGIA

Modan dago Euskal Herria desmitologizatzea, eta beldur naiz, desmitologizatze hori berori ez ote dugun mito bihurtu, zeren, * gauzen egiazko sustraia bilatzea ona bada, neurritik kanpora egitea astakeria bat besterik ez baita.

ZER GAREN

Nik ondo dakit, Euskal Herria ez dela beste munduko zerbait. «über alles» horietako bat. Baina, mitologo jaunok, ez dezagun zimaurren pareko egin.

Euskal Herria ez da besteak baino gehiago, BAINA GUTTIAGO ERE EZ.

UNIBERTSALISMOA

Ba dirudi, euskaldunok unibertsalismorako zaletasun zoro bat dugula.

Lehen, eskuinetatik zetorren, eta orain ezkerretatik. Emakumeek modak aldatzen dituzten bezala, euskaldunok modako unibertsalismoa hartzen dugu, eta ez gara konturatzen, jaioterriaren maitsunean oinharritzen ez den unibertsalismoa ez dela benetakoa, sasi-unibertsalismoa baizik.

Bada, * nola maita daiteke urrunekoa, geurea arbuizatzen * badugu?

JAUNGOIKOA ETA HERRIA

Ezker eta eskuin muturrekoek mito bihurtu dituzte kontzeptu bi hauk: Jaungoikoa eta Herria.

Beharbada, ez dira konturatzen, Kristok esan zuela, Jaungoikoa lagun hurkoarengan bilatu behar genuela; eta lagun hurkoa ez da ilargian bizi den norbait, ikastolako andereño hau edo guraso hori baizik, hots, * inguruan dugun pertsona konkretu bat.

HERRIA kontzeptuarekin berdin gertatzen da. HERRIA ez da hitz abstraktu soil bat. HERRIA ikastola batetako gurasoak dira. HERRIA kontzeptu abstraktu soilaren izenean, HERRI konkretu hori kontutan ez hartzea, HERRIA kontzeptua mito bat bihurtzea da.

Aipaturiko kasu bietan, Jaungoikoa eta Herria mito bihurtu ditugu, eta sasi-unibertsalismo bat egiten dihardugu.

IKASTOLAK

Kate bat egin dut lan honen hasieratik bertatik, eta azkenera noa: ikastoletara.

Gurasoekin kontatu gabe, ezker eta eskuin muturrekoek beren ideologiak inposatu nahi dituzte, sasi-unibertsalismo baten izenean.

Zergatik bidaltzen dituzte gurasoek beren semeak ikastolara? Hauen heziera euskaraz egiteko.

Guraso horien ideologiak oso desberdinak dira, eta euskararen nahia da multzo horren lotura bakarra.

Beraz, ikastola batetan inoiz inork ideologi mailan zerbait egin nahi izatekotan, gurasoen ideologi desberdintasun hori kontutan hartu behar du, eta guraso horien nahietara makurtu.

Ideologia bakoitzekoek «geure» ikastola berezia edukitzeko posibilitaterik ez dugun bitartean, ikastolak zabala izan behar da ideologian, pertsona guztiak errespetatuz.

Eta esan duguna: euskaragarik bidaltzen ditugu geure semeak ikastolara. Honetan guraso guztiak gatoz bat. Beraz, irakasleek, oroz * gaineratik, euskara ondo menperatzen eta pedagogia egoki baten bidez haurrei ondo irakasten, eginahala egin behar dute.

Eta, azkenik, ikastolen ekonomia ukitu * gura dut.

Diru kontuan, oso larri dabilta hainbat ikastola. Beraz, bere burua euskaldun sentitzen duen edonork, ahal duen neurrian, bere diru laguntza eskaini behar lieke ikastolei. Gela egoiak lortzeko, material on bat erabiltzeko, irakasleei justiziazko soldatak ordaintzeko, dirua behar da.

Beraz, dei sutsu bat guztioi ikastolen alde. Zeuen dirua ez duzue ikastoletan baino leku hobegotan erabili ahal izango.

Utz itzazue bigarren mailako eztabaidak. Utz teoria hutseko abstrakzioak. Lan konkretu bat dugu aurrean, ikastolarena, eta goazen ekintzara.

Dirua behar dute ikastolek, diru asko. Eta diru hori geuk eman behar dugu, geuk euskaldunok, zuk eta nik.

XABIER GEREÑO

dezagun, daigun
itzazue, eizue
lieke, leuskioe

INFORMACION TURISTICA



GUIA DEL PAIS VASCO

GUIDE DU PAYS BASQUE
BASQUE COUNTRY GUIDE-BOOK
EUSKAL HERRIKO GIDALIBURUA



Prezioa: 200 pezeta

Eskatzekotan:

- Euskal Herriko edozein liburutegi
- Distribuidora «San Miguel»
Alda. Urquijo, 60-6.º, izqda.
Tel. 23024 - 424498
- Nahiz zuzenki: Tel. 358044 edo 355263

Gure Munduko Albisteak

«Jentilen sukaldea» aztertzen ari

Orain gutxi dela, **Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra**-ren azken alea etorri zaigu, 13. zenbakia hain zuzen ere, eta bertan Jose Mari Satrustegi jaunaren eraginez aztertutako «jentilen sukaldea» izeneko haitzuloaren azterketa sakon bat agertzen da. «Jentilen sukaldea» Urdiain-en, Satrustegi parroko dagoen nafar herri jatorrean datza; eta ikertze lan honetan, numismatikan Felipe Mateu Llopis, Topographian Fermín de Leizaola, hezur ikertze arloan Jesús Altuna eta Arkheologian Ignacio Barandiarán jaunek eskaini diote laguntasun baliotsua nork bere sailean, «Jentilen sukaldea», honela, ikusmira askotatik aztertuz. Zenbaki berean, bukatzeko, Francisco F. García eta Ramón María de Urrutia jaunek Sorakoitz deriltzan herritxoan aurkitu duten hilherriaren aztertzeko interesgarria azaltzen da.

Lan bikaina, ogiatan, **Príncipe de Viana** nafar erakundearen kultur ekarria, eta ekintza txalogarria benetan azterlarri guztiona.

Bibliografiarako: **Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra**, XIII, Consejo de Cultura de Navarra, Pamplona, 1973, 115 h.

Biblia Saindua salgai

Duvoisin kapitainaren obra nagusia, Bonaparte printzearen babesean 1859-1865 artean agertutako Biblia osoaren itzulpena alegia, faksimilez argitaratu berri digu José María Martín de Retana jaunak, ohi bezala, luxuzko edizioz, Doré-ren marrazkiez apaindurik eta hiru ale larrez eta urreztatutan, bakoitzaren prezioa ia mila pezetakoa delarik.

Euskal Herrian salgai dagoen Biblia irakurgarri bakarra (**cum censura ecclesiastica** ez dagoen arren) aberatsen pribilegioa da, beraz, eta ebangelioaren kontu hura aldrebestuko zaigu: alegia, zerura joan direnak, Biblia erosteko dirua duten aberatsak izanen direla.

Bible Sainduaren edizio honek, bestetik, ez daduka Euskaltzaindiaren babesik; baina hurrengoak ba dirudi Akademiaren patrosiniopean agertuko direla, gainera. Agian laster Maoren libruska gorria ere Euskaltzaindiaren babespean argitaratuko duke Krutwig jaunak, zeren, Euskaltzaindiaren kontra ari den aldizkari baten zuzendari eta luxuzko edizioak egiten dituen jaun bati babesa ematen baldin bazaio, ez dakusagu arrazoirik, Euskaltzaindiko den eta proletarien poltsikoetarako aterako lukeen bati uka dakion.

Militar estudioen irakastegi bat Bilbon

Bilboko alkatesa, «Liberazio»ko jaiak zirela eta, Don Diagoren hirian **militar estudio oso espezializatutarako irakastegi bat** ezartzeko komenentziak mintzatu zen, joan den hilabetean.

Philosophia eta Letretako Fakultaterik ez dugu oraindik Bilbon, ez eta Biologia. Zientzia Zehatzak, Arkitektura, Arte Eskola, Baserriak eta Arrantza Eskolarik ere; baina, beharbada, Dña. Pilar Careaga andreak aipatu zigun irakastegi hori, laster ikusiko dugu geure artean.

Iruineko gertakarien inguruan

Arazoa, honez gero, berri zahar horietakoa den arren, gogora dezagun, guttienez, langile grebalarien kritika eta eskubideei bide eman zien **El Diario de Navarra** kazetaren portaera jatorra. Horri esker (ala ezker?) alde batetik ugazabaren egia ofiziala eta bestetik langileen ikusmira estalia argiro kontrastatu ahal izan dira. Eta diferentzia ez zen makala.

Udako supeak

Udako supeak izaten dira albisterik ez dagoenerako atxakiak. **La Gaceta del Norte** hasi zaigu honetan. Kazetalaritzan oso zaharra da joko hori. Baina, honez gero Rodríguez de la Fuente jo eta ke hortik ari delarik, barka ezinezkoa da, Bizkaiko Enkartzioetan metro bat baino gehiagoko suge «gaizto, kaltegarri eta pozoitsu» guztiak hiltzeko kargu ezofiziala hartu duten aita- seme ezjakin huts biren deklarazioak ezartzea, eskolara doan odozein umek ondoregi baitaki, Euskal Herrian bizi den suge kaltegarri bakarra **sugegorria** dela, eta beronek ez duela inoiz 60 zentimetro baino gehiago izaten luzeran. Zenbat eta haundiagoak, heraz, sugeak, kalte gutiagokoak izaten dira.

Herri aurreratuen kultur maila animalienenganako errespetu eta begiramenagatik neurtzen baldin bada, ez dago dudarik, honetan Euskal Herrian ez gabiltzala oso puntarengo, odozein ezjakinen aurreiritzia publikatzen dugularik.

Sondikako aireportua dela eta ez dela

Hauxe da Bilboko egunkariak aspaldion jo eta ke darabilkiguten arazoa. Irakurleak dakikeenez, Estatuak jadanik, Bizkairako aireportu berri eta nazioartea Sondikan egin dadin ontzat eman du, oraingo aireportu zaharra dagoen toki berean, hain zuzen ere. Leku honen egokitasuna Bilboko alkatesak eta beronen teknikal taldeak defendatzen dute.

Sondika, ordea, Asuko haranean dago, «Bilbo Haundia»k bere hirigintza zabaltzeko duen lekuan; eta aireportua hor egiteak, beraz, Bilboren hazkundera bidea erabat moztuko dio. Bestetik, Asuan bertan dago Bilboko Unibertsitatea, eritegi asko; eta asmoa omen dago, Unibertsitatearen ondoan, Mendikuntzako Fakultatearen arri-muan, Ospitale Haundi berria egiteko. Hegazkinen zarata ez da, segur aski, batere egoki izanen, ez inguruko bizilagunentzat, ez estudiantentzat, ez eta Ospitaleko gaixoentzat ere. Beraz, kalteak haundiak izateko dira.



Sondikan egitearen kontra daudenek, aldiz, Araban egitea nahiafokatu lukete —Gasteiz ondoan edo—, modu horretara aireportu horrek Euskal Herri osoko industri etorkizuna azkar dezan. Araba, egon ere, bai Bilbotik, bai Gipuzkoako Deba arrotik, eta bai Nafarroatik oso hurbil dago; eta bertan aireportua egiteak, ondoan autobide on batzuk egitea eskatuko luke, eskualde osoaren komunikabide oinestrukturá bereziki hobetuz. Ba dirudi, gainera, Araban egitea merkeago litzatekeela, horretarako hartu beharko liratekeen lur gehienak Diputazioarenak izanki.

Baina Bilboko alkatesak, behin eta berriro bere teknikarien arazoak aipatuz, «Sondikan egokiago da», ez du amorerik eman nahi. Aldizkariak, berriz, beste teknikari askoren eta jende gehienaren kritziak agertu dituzte, zeharo kontrakoak. Nabarienez, goikoen eta behekoen aldetik ekonomia interes ezberdinen burruka ari zaigu arazo honen barrenean.

Aita Kerexetaren hitzaldia Arrasaten

Ekainaren 21ean Euskaltzaindiak jendaurreko bilera bat egin zuen Arrasaten, Karlos Gerra eta Sebero Altube jaunen omenez. Bigarrenaz Arana abokatuak egin zuen meritu aipamen interesgarria alde batera utzita, diogun, aita Jaime Kerexetaren hitzaldia euskal arrazismorik amorratuaren erakusle zintzo zintzoa izan zela. Haren kritiz, euskaldunok odol garbiko gara (besteak, berak, odol zikinko), eta gutariko bakoitzak bere genealogi zuhaltza eta harmarriak ongi gordetzean ezarri zuen gure eginkizuna.

Harmarriak ez omen zuen euskaltzain bati entzun genionez, laster «arrazaren eguna» ipini beharko dugu guk ere, Kerexeta aipatza poz dakigun. Dakusakezunez, irakurle, Ukraina idatzi zuenak ez zuen askorik asmatu, kontatu baizik.

Athletic-en garaipena dela eta

Bai, garaia ekarri da Bilbora, eta euskaldunon ohore galdua etorri omen da horrekin Madriletik. Diogun, beraz: Aupa Athletic!

Madrilera partidua ikustearren 50.000 «basko» joan baziren —eta hemengo aldizkariak zifra horik dakartzate—, eta joan-etorrian ba-

koitzak, batez beste eta behetik jota, 2.000na pezeta gastatu bazuen, neuri kontuak irteten zaizkidanez, **ehun milloi pezeta irazi** ziren Gaztelako lurretan euskaldunen aldetik.

Euskaltzaindia, ikastolak, euskal aldizkariak, alfabetatze kanpaina eta eguneroko euskal kulturaren aldeko ekintzak nolako diru premiaz dauden kontuan hartuz gero, ba dakusagu* dirua, egon, ba da goela.

Euskal titulu berriak

Eta, Nafarroaz ari garenez gero, ezin dezakegu isilpean gorde, oraintsu irakurri dugun programma bat. Udako irakasle ikastaro batzuetarako da; eta hartan euskal hizkuntza eta kultura dira irakasteko, ikastaroaren bukaeran «titulu ofizial» bat emanez (Nafarroan euskara irakasteko **nahiz eta nahiz ezkoa** izan dena). Eratzailea Diputazioa bera da, arduraduna Marcelino Garde apaiz jauna, eta, antza denez, era honetako ikastaroetan maiz entzun eta ikusia den jaun Oartzundar bat ere ba dabil tartean.

Ikastaroari oso ederki deritzogu, euskararen eta euskal kulturaren aldeko ekintza guztiak txalogarri baitira. Baina... nor dira jaun horiek, «titulu ofizialak» ematen hasteko? Biak, maiz* dudatan jarri arren, Euskaltzaindikoak dira, eta ba dakite —jakin behar lukete behintzat, hilabetero bidaltzen zaien akta ofiziala irakurri balute— Euskaltzaindiak berak behin baino gehiagotan ezarri dituela (Bilbon, Donostian, Elbarren eta Arrasaten) euskal irakasle titulu ofiziala lortzeko examinak, ongi irtendakoei Euskaltzaindiaren irakasle diploma ofizial bana emanez. Zeregin-lapurreta egin nahi diote, bada, jaun horiek, beroiek ere osatzen duten erakundeari, ala? Lau diputazioek (Nafarroakoa haien tartean) Euskaltzaindia sortu zuten, berau euskarari dagokionez ardura zedin. Ikastaroak eratzea, noski, beste edozeinena bezalaxe, Diputazioaren kontua ere ba da; baina examinatzea, Diputazioaren ordezkari berezia den Euskaltzaindiarena besterik ez.

Era berean, guztiz txartzat hartzekoa litzateke, ontzun dugunez egia balitz, Derioko apaizgaitegian egin nahi dena. Hemen ere udako ikastaro batzuk* eratu nahi dira, «euskal irakasleak» sortzeko, baina sarrera eta matrikula pertsonaz pertsona modu diskriminatorio batez ezarriarik. Honen ondoren ere, «diploma» bat emanen omen zaie bertan parte hartutakoei.

Orain urte batzuk direla, Bilboko **Euskerazaleak** taldekoak ere halako titulu partikular batzuk ematen hasi ziren; baina, juntako jaun zuhur batzuen kontseiluz, erakundea* «nor»tasunik gabekoa zela eta, kontu hori berehalaxe bukatu zen. Honetan Martin Ugalderekin gaude gu ere. Euskaltzaindia geure erakunderik printzipalena baldin badugu, beroni eman behar diokegu* indarra eta laguntza, taldekeri jokoetan ibili gabe. Ala partikular horiekin «Nafarroarako bakarrik edo eta Elizaren babespeko ikastoletarako soilki balioke luketentitulu batzuk» sortu nahi ditugu?

Ez litzateke harrigarri, bide honetaz, bihar-etzi **El Corte Inglés**-en ere euskal irakasle titulu eta diplomak salgai ikustea.

Bediako alkatea

Agian* oso alkate ona izango da, baina euskara kontuan... Orain dela chun urtetik honako dokumentuetan Bedia v-az agertzen dela dio. Eta zer? Ez ote du Inoiz irakurri jaun jakintsu horrek, lehenagoko eskribuetan, **Vilbao, cavallo, benir, bascongado** eta horrelakorik? Ala ez du horrenbeste irakurri? Eta ez da konturatu, lehengo dokumentuetan gaztelaniaz ez zegoela **b** eta **v** kontuan nahasketa bat besterik? Ez, ez bide* du horrenbeste jakin, hemen alkate izateko Baigorri adina* ez da eskatzen eta.



Bedia zein **Vedia** idatz, dudarik gabekoa da, euskaldunek beti **b** soinuaz ebaki dutela hitz hori, soinu okusibo bilabial ozen* batez, eta ez, **El Correo Español**-eko Pello Kirten hark idatzi bezala, fonema frikatibo labiodental ozenaz, gaztelaniaz ere holakorik inoiz ez baita egon orthographiaz kanpo.

Ba dakusagu,* Madrilen herri izenak jatorrizko hizkuntzaren arauera* idazteko batzorde bat lanean ari den artean, hemengo alkate jaun batek bestelako bidea daramala. Nik galdera bat eginen nioke: **Bedia** euskal ala ordal izen bat da? Eta euskarazkoa bada, zergatik idatzi behar da euskal orthographia arruntean* ez dagoen letra batez? Ez dut uste, alkate horrek, kasu batez, erdal alfabetoari kasu larregi egitearren, **Washington** gabe **Guasinton** idatziko duenik. Ala bai?

Euskal izenak baztertzeko joera honetatik abiatuz gero, egon daiteke, horregatik, beste horrelako letraturen bat, Bilbotik pasatzen den hibaiaeren «betidaniko» izena **Hibaizabal** gabe **Nerviön** (v eta guzti) dela esatera otorriko zaiguna.

Gorka Knörr-i erantzunez

Ekainaren* 24eko ZERUKO ARGIAN, G. Knörrek Armendaritzi kritika bat egin zion. Horregatik, neronek baino hobeki Trebiñoko aireak ezagutzen dituen idazle eta kantari trebeari, kontsidero batzuk egin nahi nizkioke: 1. Inor kritikatzin hasten denean, **kritikatuak osan odo idatzi duenaz** egin dezala bere kritika, **berak** besteak idatz zezan **nahiko zukeenaz** gabe. 2. Euskal kantak mundukoekiko* gaur egun zer mailatan dauden jakiteko, ezar dezala mesedez irratia egunero bost minutuz edo. 3. Musikak eta rythmoak garrantzirik ez baldin balute, orduan esan diezaiela gure kantariei, musika gabeko mintzaldiak emateko; bestetik, garrantzirik balute, orduan kontsekuente izan dadila eta oraingo korronte modernoetatik ibiltzeko erregut diezaiela. 4. Kantatzea zerbaiterako bada, entzuleak ulertzeko da; eta nekez uler dezake beronek, kantariak (bozari dagokionez bederen*) argi eta garbi esaten ez diona, are* gutiago, kantariak berak «zer» dioen ez baldin badaki. 5. Garbitasuna eta birjintasuna nahi badugu, kritikaren hondoan dagoen manikeismoaren funtsa* horixe baita, eska biezaiola lehenik horixe beretarrei ere, ez baitirudi oso zilegi* birjintasunaz aritzea, **persona non grata** omen duten poeta baten olerkiak bereak balitu bezala kantatzen dituen adoratzen duen artean. Nik neuk, neure partetik, ez dut inoiz birjintasuna larregi gurtu, ez eta gurtuko ere, beti antzua* iruditu baitzait. 6. Zentsuraren lehen etsaia, noski, ni ere ba naiz; baina hara... batzuentzat ez ote da maiz* izaten delako zentsura hori, beren «antzutasuna, alferkeria eta lan egiteko gogorik eza» estaltzeko atxakia eroso* bat? Zaharren «gerra denboran asko pasatu genuen», «ez digute ezer egiten uzten» gisakoak gazte batzuen artean ere entzuten hasiak gara aspaldion. 7. Geuro mythoak behar ditugu; baina mytho izaten segi dezaten kritikatzin ez baldin baditugu, hobetuz joan dakizkigun, idolo bihurtzen ditugu, guztiok haien idolatra fanatikoen sailean jarriz. Besterik ez.

ARMENDARITZ

biezaio, beio
dakizkigun, dakiguzan
darama, daroa
daude, dagoz
dezagun, daigun
dezake, daiko
dezakegu, daikegu
dezala, daiala
dezan, daian
dezaten, daien
diezaiela, deioela
digu, deusku
digute, deusku
dio, deutso

diogun, esan dezagun (daigun)
diote, deutsoe
lukete, leukee
nioke, neuskio
nizkioke, neuskioz
zaie, jake
zaigu, jaku
zaio, jako
zait, jat
zaizkit, jataz
zezan, eian
zìgun, euskun
zion, eutson



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI
Muelle de Uribarte, 15 BILBO - 1

GIZARTE ETA LANTEGI ZUZENDARITZA MODUAK

Geure bizitza osoan, konpartimendu hitxiak* balira bezala azaldu dizkigute gertaera guztiak: ikusmira metafisiko batetatik, alegia.* Gertaera hoiere arteko egiazko harremanak ahantziak* izan ohi dira. Jarrera* dialektikorik aipatu ere ez digute egin. Baina norberaren ausartiaz metodo dialektikoa ezagutzera norbait irixten* bada, oso zaila zaio hartaz ahanztea; gertaera edo arazo bat aztertzeko garaian, tresna hoiberenetakoa bat duela baitaki.

Adibide bat azter dezagun: lantoki bateko zuzendaritzak eta gizarteak duten antza. Adibide hau estudio baten ondorioa dela esan beharrean gaude, egun* enpresa gizonen artean oso modan dagoen «consulting» delakoaz baliatzen den enpresa batek egindako estudio baten ondorioa, alegia. Estudioaren gaia: **Lantegi zuzendaritza moduak**. Hiru molde edo modu agertu ziren:

- bakarrikako nagusikeria: goitik beheranzkoa.
- nagusikeria biguna, edo sozial harremanak onhartzen dituen.
- zuzendaritza demokratikoa.

Azter ditzagun banan banan:

A) BAKARRIKAKO NAGUSIKERIA

Honen bereiztasunak hauk dira:

- aginduak nagusiak ematen ditu.
 - nagusiak bezainbeste dakienik ez da.
 - erabakiak haren esku daude.
 - lantokiaren helburuak nagusiak berak jartzen ditu, menpekoei ezer adierazi gabe.
 - menpekoei buruhausteez ez da zuzendaritza jabetzen. Ez dio axolarik.*
 - langilea alferra da izatez; horregatik, gogorak izan behar omen* dute nagusiek.
- Agintzeko molde honen ondorenak aipa ditzagun:
- inizatiba guti lanean.
 - ezinegona eta agresibitatea dakartza.
 - produktibitate gutiago dute langileek, ohiturazko lana ez bada.

Faxista Estatu baten antz handia du molde honek. Jainkoaren pareko da nagusia. Herriak, Estatuaren helburuak jartzeko ez du hitzik. Herria burua makurtzeko da, edo, bestela, errepresioaren hortz* latzek makurteraziko diote. Baina, lantokian bezala, ezinegona sortzen da herrian ere.

Molde honen ondorio zitalak ikusirik, lantegi zuzendaritza beste molde batetara pasatu zaizkigu:

B) NAGUSIKERIA BIGUNA

Edo sozial harremanak onhartzen dituen. Garrantziko bereiztasunak:

- lantegi zuzendaritzako arazoetan sar erazi nahi du langilea.
- menpekoei proiektuak azaltzen dizkie, ez ideia batzuk

azal* edo alda diezazkioten, dauden daudenean onhar* ditzaten baizik.

- aginduak ez dira jartzen, ideiak sartzen dira.
- nagusia, noski, gehien dakiena da.
- gizonari buruz, lehen moldekoen eritzia baino «hobe» dute: langileak limur* ditzaketela uste dute.
- beraz, itxura aldatzen da, ez barrua. Molde honen ondorioak hauek izan litezke:
- lehen molde hartatik bigarren honetarako aldaketa hau, hasieran onhartua izaten da; baina, aldean faltsukeria dakarrela oharturik, fidagaitz bihurtzen da langilea.
- molde honek aurren aurrenetik jendearen konfidantza lortzen ez badu, lehenbiziko molde hartan erortzen* da.

Burjes demokraziaren antzekoa dugu molde hau. Hauteskunde* bidez Estatuaren zuzendaritzan sartu nahi dute herritarra, baina hauteskunde hoik* itxura besterik ez dira. Azken mementoan oligarkiak, nahi duena egiten du. Ezin argiagoa dugu Vietnamgo adibidea: Ipar Amerikako herriak gaitzetsi* arren, hilketek iraun egin zuten. Gizonari buruz dadukaten eritzia hauek da: oso alienagarria dela. Jendeak, pentsatzen duena esan dezake; baina horrekin ez du aldaketarik lortzen. Kontraesanak gorde ezinezkoak direnean eta herriaren indarra zapaldu ezin dutenean, faxismora jotzen dute. Fenomeno hau parlamental Estatu guztietan onhartua da. Ipar Amerikan behintzat, Vietnam dela eta ez dela.

C) ZUZENDARITZA DEMOKRATIKOA

- nagusia ez da gehien dakiena. Desberdintasun hori ez da nabaritzen.* Zuzendaria koordinatore bat da.
- ekipo lana oinharri bat da.
- langileak ba ditu hitza eta eginkizuna lantegiko azken helburuetan. Bai eta hauk* erabakitzean ere.

«Consulting» enpresa horrek zioenez, oso zaila omen* da azken modu hau muntatzea. Interes desberdinak jokoan omen daude eta. Baina desberdintasun hau gaindi* daitezkeela esaten zuten. (Ez dugu esan beharrik ere, enpresa horrek ez duela klase arteko burrukarik ezagutzen). Beraz, kapitalista gizarte batetan demokrazia hori lortzerik ez dagoela argi dago. Lantoki mailan berdinean genezake. Baina talde eta organizazio batzuk* ba dira, bide horretatik joan direnak. Denak, oraingoz, «consulting» enpresa horrek esan zuenez, arrisku batekin topatu omen dira: taldeen zatiketarekin.

ARATZ

daude, **dagoz**
dezagun, **daigun**
dezake, **daike**
diezazkioten, **deioezan**
digute, **deuskue**
diote, **deutsoc**
ditzagun, **daiguzan**
ditzaten, **dalezan**

dizkie, **deutsez**
dizkigute, **deuskuez**
gaude, **gagoz**
genezake, **geinke**
litezke, **leitekez**
zaio, **jako**
zaizkigu, **jakuz**
zioen, **inoan**, esaten zuen

Agur, Jean Bosc!

Jean Bosc, cartoonist edo karikaturista, hil egin da. Dibujo* bat bezala dibujatu du bere azkena: bere burua hil du. Jakina, Jean Bosc «humore beltzekoa» omen zen, haren eztenak ziztaturik sentitzen zirenek ziotenez. Eta nor ez zen nolabait dibujo itxurabage haietan harrapatu-rik aurkitzen?

Baina ez dakit, karikatura haietan ez humore beltzik eta ez horirik zegoen: tristuraren eta burlaren arteko irribarre bat zegoen, nahigabea eta mina. Samina. Mundu zoro honetan indibidualista bati gelditzen zaion nahi-gabe garratza.

Jean Boscen egun haundiak Algeriako gerlak* ekarri zituen. Garratzasunez dibujatzen zuen gerlaren absurdua: hilabeteko gartzela eman zioten, bere dibujoak «sudversiboak» zirelako. Boscek ba zekien, gerla zer den. 19 urtetako mutil bat zen Jean Bosc, Nimes ondoko mahastietatik atera eta, «aberrriak» harmaz kargaturik Indotxinara bidali zuenean. Barrutik apurturik utzi zuen Jean Bosc gerla honek. Etxeraturik, Jean Bosc autodidakta dibujatzen hasi zen. Beste batzuek idatzi edo hitz egiten duten bezala, Jean Boscek dibujatu egiten zituen bere inpresioak eta gogoetak.

Egun batetan, hartu bere dibujoak kanpazoan,* eta Paris Match-en erredazioan presentatu zen. Egun hartan hasi zen Jean Boscen arrakasta* bidea. Batez ere Chaval-en influentzia zekarren. Eta heriotzean ere Chavali jarraitu* zaio, harek bezalaxe bere burua hiltzean.

Habila zen militarri, gerlari, de Gaulleri adarra josten. Eta egungo bizimodu guztiari tankera* paramilitar bat ematen dionari ere: dela trafikoa, udatiarren masa turismoa, ehorzketak,* desfile ofizialak eta zernahi antzeko.

Jean Bosc indibidualista amorratua zen. Hor, karikatura batetan, jendea, ilaran,* bata bestearen gainean pilatzen da, desfile bat ikusteko, hanka punttetan eta lepoa* luzaturik. Atzean, guztiz demonstratibo aulkian eserita,* gizon bat gelditzen da. Baina indibidualistarentzat ez dago mundu honetan lekurik: anormal bat bezala ikusita dago, eta, Jean Boscen dibujoetan behin eta berriro ikus daitekeenez, azkenean jendeak desprezios akabatzen du. Jean Boscen dibujoetan jendearen erdian agertzen den indibiduo bakarrak beti absurdua adierazten du: bere burua esekitzera* doan bat duzu, edo gerlak mutilaturiko soldadu galdu bat, edo militar autoritario bat soldaduen buruen gainean martxatzen.

Jean Boscek bizitzako situazio jeneralak dibujatzen zituen. Ez, Konkek bezala, gertaerak desfiguritzen. Ez zen Sempé bezalakorik ere: modari, edo ahopeko esamesari erantzuten dion gizarte-ilustradorea. Ez zituen karakteroak ager erazten, eta bai situazioak. Hortik zihonan, bai karikaturetan eta bai dibujo bizitako filmeetan. Keramikan ez zuen arrakastarik izan.

Jean Boscen arrakastarik haundieneko urteak 50 eta 60.enak izan ziren, eta nolabait urte haiei loturik zegoen Jean Bosc. Gerla ondoko Pariseri, Tardieu eta Ionescoren

fantasia beltzak eta teatro absurdua sortera zituèn* Pariseri. Une batez absurdua ezagutu zuèn Pariseri. Eta Jean Boscek, absurdua berriro ahaztu* duen Parise ahaztu nahi izan du: bere burua hilez. Agur, ba,* Jean Bosc: eta izan beza bizi hobe!

M. L.

Albanera Literario Batua (I)

Neure eskuetan Lazar Dodic-en informe bat dut: albanera literario batua egunotantxe nola sortzen ari diren esplikatzeko.

Albaniarrak, Europako indo-germaniko herrietan, zaharretakoak dira. Guztiz interesgarria zientifikoentzat. Haien ohiturak, ohiturazko legeak, folklorea, eta haien hizkuntza batez ere, guztiz jakingarriak dira, indo-germanikoen historia zaharra argitzeko. Balkan herrien prehistoria ezagutzeko ere, laguntasun handia ematen dute hizkuntzan eta ohituretan gordetako datuek.

Gaurko albaniarrak Ilirioen eta Thrakioen ondorengo bezala har daitezke. Eta bi herriok, historian zehar, grekoen, erromatarren, turkoen eta geroago eslaboen menpean egonak dira. Eta guztiok nolabait asimiliatuak. Hala ere, albaniarrek ez dute beren nortasuna galdu. Ilirioak eta Thrakioak, bestalde, herri indo-germanikoak ziren. Bi mila urte inguru K.a. okupatu zuten Balkan lurraldea.

Beraz, albaniarrek aintzina aintzinako kultura indo-germanikoa gorde ahal izan dute, Albaniako mendiarteri esker, aislatuta bizi izan dira eta. Ez da harritzekoa, ba,* zientzian Albanologia diziplina edo adaska* bezala desarroilatu baldin bada.

Albanologian kapitularik importanteena hizkuntzaren azterketak betetzen du. Hizkuntza indo-germanikoen eza-gupenerako biziki interesgarriak diren fenomenoak aurki daitezke albaneran. Hizkuntza honetan garbi haute-man* daitezke prozesu historiko ezberdinen aztarrenak: greko, erromatar, turko eta eslabo haroen aztarrenak, alegia.* Eta egungo azterketetan zientziek bitxitasun eta orientazio asko susma dezakete albaneran: beste hizkuntzetan bakan* agertzen den zenbait fenomeno, albaneran arruntki* gertatzen baita. Albanera hizkuntza propio bat da, hitz greko, eslabiko eta turko askorekin. Albaniarrek berek **skipetaro** izendatzen dituzte beren buruak (Vasco-ek **euskaldun** bezala).

Hiru milioi eta erdik hitz egiten duen hizkuntza honek (2,2 milioi Albanian, besteak Jugoslabian) ba du bere literatura herritarra. Baina 1972.eko hazilerarte* ez du hizkuntza literario baturik eduki. Orain arteko literatura dialektutan egin izan da, batez ere Iparraldeko eta Hegoaldeko bi moduetan: Toskikoan (hegoaldekoa) eta Gegikoan (iparraldekoa) alegia.* Oraingo gobernuak 1972.eko hazilaren 20tik 25era Biltzarre orokor* bat antolatu zuen, Tiranan, albaneraren idazkera finkatzeko eta albanera literario batua erabakitzeke. Biltzarre honek erabaki zituèn arauak aginduko dute hemendik aurrera idazkera kontuan. Ondorengo urteetan erabakiko dira, banan banan, oraindik falta diren puntuak.

LAZKANO MENDIZABAL

Albanera literario batua (2)

Albanera literario batuaren arazoa burubidatzea, ortografiarena baino zailagoa izanen da. Eta erabaki ere, astiro ibiltzea erabaki zuen Batasunaren Biltzarreak. Problema hau orain arte ezin erabaki izan da, bi dialektuek —iparraldeko gegikoak eta hegoaldeko toskikoak— indar berdintsua baitzuten. Eta bien alde zegoen arrazoirik franko. Bi dialektuen arteko etsaitasuna,* aldiz,* zaharra da, eta, hizkuntzako berezitasunaz aparte, maiz* erlijio diferentziek eta bestelakoek ere suztatua. Bi dialektuen arteko etsaitasun hau XIX. mendearen azken aldean eta XX.aren hasieran burruka bizi bizitaraino ailegatu zen. Garai honetan indartu zen albaniar literatura, hain zuzen bi dialektutan hautsita, eta elkarren etsai biziren moduan ziharduten bi dialektutan. Alfer alferrikakoak izan ziren, albanera literario batu bat sortzeko entseiu* guztiak. Akordiorik ezin lortu izan zen: hegoaldekoek toskikoan eta iparraldekoek gegikoan idazten jarraitzen zuten.

Desarroiok, hala ere, toskikoaren alde erabaki du, dirudienez. Ez, noski, literaturaren berezko desarroiok, gobernuaren laguntzarekin egin ahal izan denak baizik. Dinamika soziologikoak erabaki du. Problemarik gaitzena, beti ere, Jugoslavian bizi diren 1,3 milioi albaniarrek jartzten zuten: hauek dialektu gegikoa hitz egiten, idazten eta eskoletan erabiltzen dute. Baina 1968.ean, Tiranako gobernuaren eta honek sortutako errealtateen kontsiderazioz toskikoa erabiltzea erabaki zuten Jugoslabiako albaniarrek ere. Eta, horrekin, ia erabaki* samarturik gelditzen zen aspaldiko burruka. Toskikoa Albaniako administrazio zentralaren hizkuntza da; eta horrek sortu du dialektu honen aldeko erabakia. Dena den, Tiranak darabilen toskikoa ez da toskiko hutsa, gegikoari harturiko osagarri askoz hornitua baizik: toskiko osatua dei geniezaioke, justu hitz egitekotan.

Hizkuntza literario baturik sortzeko, lehen lehenengo problema* ortografia bateratzea da. Ihazko Biltzarreak ezin erabat* bateratu izan zuen ortografia: diferentzia gehiegi zegoen, eta amor emateko borondate gutiegi. Orduan, jakitunen batzorde bat izendatu zen, eta honi enkargatu zaio punturik zailenak erabakitzea. Aurten egin behar du hori. Gero, batzorde honek erabakiko duen ortografiarekin, hiztegi oso bat egin eta argitaratuko da, 1975. urterarte. Lan hauk* guztiok gobernuaren laguntzarekin egiten dira.

Oraino ez dago jakiterik, literatur hizkuntza batuan dialektuen ezberdintasuna nola superatuko den. Makina bat hautsi-mautsi* egin beharko da, guztiak —edo inor ere ez— kontentatzeko. Hala ere, honez gero garbi ikusten da, albanera literario batuak enbor legez* toskikoa hartuko duela, eta, funtsean,* toskiko osatuaren antza edukiko duela. Mailaz maila eta epez epe joanez, 1975.-erako, albanera literario batua sortuta egongo da.

Ez da batere harritzekoa, batasun asmo honi egin zaion no dexente gehiago dira gegikoa hitz egiten dutenak. Gegikoak literatura zaharragoa eta aberatsagoa du, besteak baino. Zientifikoentzat ere gegikoa interesgarriagoa da toskikoa baino, forma arkaikoagoak gorde baititu (eta egon ere, albanologo atzerritarrak beti gegikoaren alde egon dira, albanera batuaren hauzietan). Herbestean oraindik aurki daitezkeen hiztegi eta gramatika albaniarrek beti gegikoan oin hartu dute, eta abar. Hala eta guztiz ere, toskikoa nagusitu da, Estatuaren indar politikoa tradizio literario eta interes zientifiko guztiak baino dezisiboagoa da eta.

Albanera batua ere «penaz eta dolorez» egindako operazio batez bakarrik sor daiteke. Dialektutan hautsita esistitzea guztiz sanotzat dadukanak batez ere, ez du batasun horretan pozik izango. Baina dialektutan hautsita segitzerik ez dagoela konprenitu duenarentzat, gauza ttipiak izango dira galduko diren edertasunak, batasunaz irabaziko denaren aldean. Gainera, albanera literario batua indartutakoan,* «galdutako» edertasun asko atzera errekupera liteke astiro astiro. Lehenengo asko sinplifikatu beharko baita (ahalik gehiena); baina geroago albanera literarioa aberastu ere egin ahal izango da, horretarako adina* bete* dezanean. Sasoitzen denean. Bi epeok berezi beharra dago. Albanera literarioa indartzen denean, berez errekuiperatuko ditu, behar dituen eder-* eta aberastasunak!

Arrazoi literario eta linguistiko guztien kontra, toskikoaren alde erabakitzeke arrazoiak (eta linguistak nahiz literatoak GAUR ados dira erabaki horrekin) hauxe izan da: egungo* informazio medioetan eta administrazioan toskikoa nagusiturik dagoela. Beraz, «literaturan» pobregoa bada ere, «basian» jadanik* toskikoa ngusitu dela. Eta literatoek eta linguistek ondo dakite, azkenean «basiari» jarraitu beharra dagoela gauza hauetan. Hizkuntza han «egiten» baita. Beharbada, «basiaren» horrelakoxe konfigurazioan, politikoez burubide nahiko aldrebesak erabili badituzte ere. «Un hecho vale más que un alcalde» esan ohi baita.

LAZKANO MENDIZABAL

geniezaioke, geinskio

zaio, jako

BIZKAIKO AURREZKI KUTXA

Erakunde honek,
Bilbon eta Probintzia osoan,
gizarte premia guztietarako
laguntzarik zabalena ematen dihardu,
eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

Zeure dirua gordetzeko:

Caja de Ahorros Vizcaina

Bulego nagusia:

Plaza de España, Bilbo

Tel. 243600 - 211290

Hiriburuan 17 agentzia

Probintziako herri nagusietan
75 ordezkari-tza

Madri-leko agentzia:

I.C.C.A. Alcalá, 27

Tel. 2214995

SATORRA (12)

Aitona aspaldian asperturik egoan, soloan* ibiltzen jakon satorra zala eta. Horregatik, gaur goizean, hamar eta erdiak aldean, haitzurra hartu eta lur pila batean jotzen ziharduanean, dzapa! haitzur kolpe batez kanpora atera dau ileguri* beltzaz jantzitako mealaria,* bizi bizirik gainera. Eskuan hartu, satorrek haginkarik* ez dabe egiten eta, eta bere iloba* Enekori daroatso, beroni piztiattoak asko gustatzen jakozela ondo daki eta. Osaba Martin berarekin dago, eta satorra aska huts batean sartu dabe, zer egiten dauan ikusteko. Piztiattoa, ikaraz, alde batetik bestera ari da korrika, handik irten* ezinik.

—Hil egingo da hor, osaba?

—Bai, berriro lurrera sartzen ez bada.

—Baina ezin geinke berriz ere lurrera bota; aitonaren sorora oster* ere joango litzateke, eta sustrai guztiak jango leukez bertan.

—Horretan oker zagoz, Eneko. Satorrak kaltea egiten dau, bai, lurrean zuloak egitean landareen sustraiak apurtzen ditualako, baina ez jaten ditualako, satorra lurpeko kokoetatik bizi da eta: harrak, kakarraldoak,* bareak, larbak eta honetarikoak jan egiten ditu.

—Eta zelan* topatzen ditu, ba*? Begiez?

—Ez, satorrak ez dau bere begi ttikittoez ezer ikusten; eta bista ona baleuka ere, berau alferrekoa izango litzakio lurraren barruko iluntasunean. Janaria lurpean topatzeko, sudurraz, usaimenaz baliatzen da satorra. Lurraren barrenean ari diren koko guztien usaina hartzen dau, eta, hareen bila joateko, zuloak egiten ditu, barruko lurra, tarteka, kanpora pilaka ateraz. Lur pila honek kalte handia egiten dabe soloetan, segak* eta kodainak horreekin laster amusten* direlako, bai eta, zuloak egitean, landare gazteen sustraiak apurtu ere. Baina lur barruko zulo horrekin mesede bat egiten dabe, horregatio,* eta ez ttikia: curien ur gehiegia lur barrura sartzeko bide egokiak egiten dituela.

—Orduan ez dira guztiz kaltegarriak satorrak?

—Ez. Lur barruko kokoak jatean mesede handia egiten deutsee landareei, har horrekin, bestela, sustraiak jango leukeez eta. Bestetik, lurra haizeztatu eta harrotzeko onak dira, bai eta ura barrura sar* dadin ere. Txarrena, baina, hauxe da: satorrak ez daukala ezertan kontuan hartzen ez baratzerik, ez orturik, ez solorik, ez mintegirik ez eta belar zelairik ere, eta holakoetan, bere lur piloez, kalte handi goa egiten dauala mesedea baino. Horregatik aitonak ondo egin dau solotik kentzean.

—Eta beti lurpean bizi izaten da satorra, osaba?

—Bai. Habia bera ere lurpean dauka, zuhaitz edo haitz haundiren baten azpian, metro batetara edo. Bertan, maiatzean edo ekainean,* satorremeak urtero lau edo bost kumetxo egiten ditu, ile* gabe eta itsu. Han, horbelezko* eta belar sikuzko epeltasuntxoan hazi egiten ditu.

—Eta satorrak, askako hau baino haundiagoak ez dira izaten?

—Ez. Satorrak 14 zentimetro izaten dau luzeran eta 2,5 zentimetrotako buztantxo bat. Dakusazunez,* aurreko hankak ttikiak, zapalak eta indartsuak dira, hatzazal gogorrez hornituak, horrekin zuloak egin ahal izateko.

—Zelako* beltza dan, e osaba?

—Bai! Baina ez pentsa, sator guzti guztiak beltzak direnik. Gehientsuak bai, beltzak dira. Baina ba dira, gaztaina kolorekoak, zuriskak eta albinoak, guztiz zuriak direnak ere, azkenok oso bakanak* izan arren.

—Eta zer egingo dogu honekin, hil?

—Ez. Goazen basora eta bertan utziko dogu, bakean eta inori kalterik egin gabe bizi dadin. Gainera, bidetik goazela, ipuin bat kontatuko deusut, satorra dala eta ez dala.



—Bai, bai, goazen!

Satorra pote batean sartu, lurreko har batzuk barrura bota, bidean jan daizan, eta loba-osabak basora abiatzen dira, inor bizi ez dan leku batetara, satorra askatzeko.

—Hara —dinotso osabak—. Baserritarrek dioenez, aintzina aintzina satorrak ba ei* cukazan begi eder batzuk,* eta lurraren gainean bizi ei zan; zapoa, berriz, itsua zan eta zuloetan sartuta egoten zan beti. Egun batean satorrak zapoari esan ei cutson: «Aizak,* zelako buztantxo ederra doan atzean, txo. Nik neuk ez joat* holakorik». Eta egia; zapoak, zapaburuen modura edo, halako buztantxo bat ei eukan atzean. Orduan zapoak esan egin ei cutson satorrari: «Hire begien truke eman go neuskik pozik, ba,* neure buztana». Satorrak begiak eman ei cutsozan zapoari eta zapoak satorrari buztana; eta harez gero satorra lurpean bizi da lotsatuta eta zapoa lur gainetik.

—Bai truke txarra egin ebala satorrak! Ez da, osaba?

—Bai, eta horregatik lagun bat salerosketan galtzen irteten danean, *satorraren tratua egin dauala* esaten da oraindik.

—Bai istorio politta, osaba. Eta erdaraz nola esaten jako satorrari, ba?

—Frantsesez *taupe* (= top) eta gaztelaniaz *topo*. Zientzi izena *Talpa europaea* da.

TRAUKO

dabe, **dute**
daizan, **ditzan**
daroatso, **eroaten (eramaten)**
dio
dau, **du**
deutsee, **diete**
deusut, **dizut**
dinoe, **diote**
dinotso, **diotsa, osaten dio**
dok, **duk**
eban, **zuen**
eukan, **zedukan (zeukan)**

cukazan, **zeduzkan (zeuzkan)**
cutson, **zion**
cutsozan, **zizkion**
geinke, **genezake**
jako, **zaio**
jakon, **zitzaion**
jakoz, **zaizkio**
leukeez, **lituzkete**
leukez, **lituzke**
litzakio, **litzaioko**
neuskik, **niake**

Italiako Kristau Demokrazia

Kristau Demokrazia, Italiako talde politikorik nagusiena dela eta 27 urte agintzen daroala^{*} esaten badugu, oso gutti esaten dugu. Haren indarraren zergatikoak argitzeko, Bigarren Gudua eta Elizaren jokabidea gogoan izan behar ditugu.

Bigarren Gudua faxismoaren heriotzea izan zen. Beraz, haritik kanpora zegoen, nahi eta nahi ez, faxismoa defendatzea.

Italiako jende xeheak («katoliko» ohituraz), Elizarekin batera, komunismoaren «fantasma» baztertu gura izan zuen, aldi hartan batez ere.

Egoera honetan, Kristau Demokrazia Mesias bezala agertu zen: antikomunista eta antifaxista. Horretan datza^{*} (erraxegi esanez) Kristau Demokraziaren onhartzea herriaren aldetik.

Italiako jaun eta jabe, Kristau Demokraziak zeregin handia zedukan: gudu ostean^{*} hautsirik zegoen herria altxatzea, eta horretarako behar ziren aldaketa guztiak aurrera bultzatzea. Baina Kristau Demokraziaren zer guztia, edo nagusienetariko bat behintzat, boterea indartzea zen, hots,^{*} geroago eta sendoago egotea Italiako egoera barruan.

Gaur egun Italian jazotzen^{*} diren gauzak, denboraldi hartako politik^{*} ondorenak baino ez dira.

1962. urtean, Kristau Demokrazia eta sozialist^{*} taldea elkartu egin dira. Baina orain, hamairu urte geroago, argi eta garbi ikusten da, ezinezkoa zela elkartze hori. 1962.ean, talde politiko bi elkartu ziren; baina, haien ideologiak elkarren kontrakoak zirelarik, elkartze hau guztiz azalezkoa zen. Izan ere, nola elkar zitekeen Kristau Demokrazia (beheko eta erdiko burjesiaren lapikokoa^{*} defendatzen duena)

langile talde politiko eta herrikoi batekin? Txakur ametsa!

Erdiko ezkertiar taldearen gaurko larrialdia eta, hitz batez, Italiako egoera osoaren larrialdia, horretan datza.

Kristau Demokraziaren ideologia, ezkertiarra ala eskuindarra ote da? Teoriaz, ez bata ez bestea. Zuzendarien eritziz, Kristau Demokrazia erdiko partidu bat da; baina asko ikasiak ez dugu izan behar, «erdiko politikarik» ez dagoela ikusteko. Ekintza baten aurrean, odozein partidu erabaki konkretu bat hartu beharrean dago; orduan ezker edo eskuin aldera jo beharko du. «Erdian» ez da geldituko, noski.

Interklasista ere dela diote; baina hori gezurrezkoa da. Sasi-kristau erdiko batek eraginik, herriko behe mailakoek, komunismo eta faxismotik alde egitearren, Kristau Demokraziara jo dute beti. Horrela, hauteskundeetan^{*} orduan, Kristau Demokraziari emango diote botoa itsu itsuan, haren jokabidea beren eskubideekin ados duden ala ez aztertu gabe.

Kristau demokrata gazteek, beharbada, pixka bat aldatuko dute Italiako egoera. Geroa testigu.

BITTOR EGURROLA

daude, dagoz
diote, dinoe; deutsoe
zedukan (zeukan), eukan
zitekeen, eitekean



Banku batetik espero duzun baino askoz gehiago eskaintzen dizugu.

Hala ere, oraindik gutti dela uste dugu.

Hona hemen, emakumearentzat eskaintzen dugun zenbait zerbitzu. Haietarik batzuk ez dira berriak. Baina denek dute berezitasun bat: emakumea haintzat hartzen dutela.

Hau kontuan harturik, Banku barruan bertan bulego batzuk muntatu ditugu, neskatala espezializatu batzuen ardurapean daudenak.

Eta dena egin dugu, gure gizartean emakumeak lortu duen aurreramentuak harrotzen gaituelako. Honela, geure oneritzia eta mirespena erakusten diegu bai etxeko andreei eta bai emakume soilei.

Gaurko emakumeak ba daki zer nahi duen eta bere gurariak nola lor ditzakeen. Zerbitzu hauen bidez geure eskerrona erakutsi nahi diegu, eta geure laguntza eskaini.



Cheques Regalo



Cheques de Viajero



Cuentas Corrientes



Domiciliación de Recibos



Libretas de Ahorro



Atención a la Mujer



Giros y Transferencias



Operaciones de Crédito



Banco de la Mujer

Banco de Bilbao Banku honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu

Igarkizun bat. Greziar mythologian ba omen zegoen jainko bat, Lurraren azpian hogeit metro tara sartuta bizi zena, harriak jaten zituena. Ba ote dakizu, irakurle, haren izena?

Erantzuna:

Harrigalea

Einstein-i asmatzea hainbeste kostatu zitzaion teoria zertsu den ulertzeko, hona hemen esanplu bat. Nik dazagudan* pertsona bati esanen banio, kasu batez:

—Aizak,* ba al dakik bi eta bi lau direla?

Berak berehalaxe galdetuko lidake:*

—Nork esan du hori?

Orduan, nik eratzun biok eman diezazkioket:*

a) —Aita Sainduak esan zik.*

—Egia duk orduan— esanen luke berak.

b) —Leninek esan zian.*



—Orduan gezur hutsa duk — erantzunen luke oso osorik.

Hona hemen, irakurle, erlatibitatearen teoriaren funtsa* zertan datzan.*


Beste galdera bat orain. Lurraren parte batetik bestera, Euskal Herritik Zelanda Berriraino, kasu, zulo bat eginen bagenu, Lurraren erditik pasatuz, eta goitik harri bat botako bagenu, noraino helduko litzateke harri hori?

Erantzuna:


Hogei metrotaraino bakarrik, bertara heltzean Harri-jaleak jaten lukeelako.



GORA: RABINDRANATH TAGORE



GURUTZEGRAMA (23)



Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Gipuzkoako hibaia.—2. Letra baten izena.—3. Zerbait juxtu juxtu jotzeraino hurbildu.—4. Bokala. Zikoitza: dirua hartzeko prest, baina... zuhur. Bokala.—5. Abisua (alderantziz). Bokala. Makala.—6. Itxura (alderantziz). Pelotari baten izena (alderantziz).—7. Kontsonantea. Nola aurkitzen da lan asko egin duen langilea? Kontsonantea.—8. Zerbaitetarako joera edo gogoa duena (artikuluarekin).—9. Jaio (sustrai-infinitiboan).—10. Nondik pasatzen da Urola hibaia, Zumaiara heldu ordukoxe?

Goitik behera: 1. Izan aditzaren forma (alderantziz).—2. Izan aditzaren forma (alderantziz). Bokala.—3. Zenbakia. Bokala.—4. Bokala. Gogaldi onez. Kontsonantea.—5. Ahuntzaren arra (alderantziz). Jakiteko, zer egin behar da?—6. Nafarroako hiria. Zer moduz? (alderantziz).—7. Euskal kantari baten deitura. Irten, jalgi.—8. Bokala. Ezeztatu (artikuluarekin). Kontsonantea.—9. Lo egiteko tokia (artikuluarekin). Bokala.—10. Izenorde personala (alderantziz). Kontsonantea.—11. Arloa.

AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Urola.—2. Ele.—3. Ukitu.—4. A. Emateko. A.—5. Ohar. E. Ahul.—6. Irudi. Ogeta.—7. D. Nekatua. R.—8. Zalea.—9. Sor.—10. Oikinatik.

Goitik behera: 1. Dira.—2. Da. O.—3. Ehun. I.—4. U.—5. Aker. Ikasi.—6. Olite. Nola.—7. Lete. Ate.—8. A. Ukatua. T.—9. Ohea. I.—10. Gu. K.—11. Alor.

HIEROGLYPHYKOA



Non bizi dira?

EUSKAL SALDA

M	A	T	X	A	L	O	T	I	N
I	X	A	B	E	K	O	L	A	I
X	I	S	O	E	N	E	K	P	R
A	L	I	N	X	A	B	I	E	R
R	A	E	U	R	O	M	I	S	I
R	I	R	K	I	N	O	A	E	B
A	N	R	B	I	Z	H	M	I	U
P	H	J	O	R	M	E	T	O	A
I	O	K	A	P	A	T	X	W	Z
Z	A	G	I	Z	E	N	I	K	E

Goiko koadro horretan zazpi euskal pertsona izen daude, zuzenean jarrita. Aurkituko dituzu? Kontuan hartu behar duzu eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HIEROGLYPHYKOAAREN ERANTZUNA:

Kalean

EUSKAL SALDAREN ERANTZUNA:

Ainhoa, Asier, Mikel, Eneko, Oier, Amaia, Xabier.

HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABOTS. voz.
ADIN, edade.
ADINA, aina, beste, bezainbat.
ADORE, kemen.
AGIAN, beharbada, nonbait, eiki, aurki, hurraan.
AHANTZI, ahanztu, ahaztu.
AINA, adina, beste, bezainbat. (Hitz honek ez daranta H-rik).
AIPATU, aipatutako, aipaturikako, aipaturiko.
AITZINEAN, aurrean.
AIZAK, adi ezak, adi eik.
ALA, o qué?
ALDIZ, herriz.
ALEGIA, a saber, es decir, esto es; parábola.
AMILDU, precipitado, hundido.
AMUSTE, kamusto, desfilar, emousser.
ANITZ, asko.
ANTZU, estéril.
ARAUERA, arabera, según, conforme.
ARBUIATZE, despreciar.
ARE, oraindik, aün, encorr.
AREAGO, oraindik gehiago.
ARETO, sala, salón.
ARRANGOITZE, Arcangues.
ARRAS, guztiz, zeharo.
ARRO, cuenca, bassin.
ARRUNT, común, corriente, ordinario.
ASKI nahiko.
ATMOSPHERALDE, zona de atmósfera.
ATXIKIMENDU, adhesión.
AURRERITZI, prejuicio.
AUSART, atreverse. (AUSARTU, atrevi-do).
AXOLA, ardura.
AZAL, exponer. (AZALDU, expuesto).
AZTARREN, aztarna, vestigio.

BA, bada, pues, donc.
BADA, ba, pues.
BADAZPADAN, por si acaso.
BAITAN, gan.
BAKAN, raro.
BANAZKATZE, banatze.
BARREIATZE, esparcir, difundir.
BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuek pasibo).
BEDEREN, behintzat, behinik behin, gu-tienez.
BEHINBEHINEKO, provisional.
BEREZTE, bereizte, distinguir.
BETE DEZANEAN (bete daianean), bete-tzea duenean.
BIDE, agian, beharbada, nonbait.
BIDENABAR, bide batez.
BILAKATU, bihurtu.
BILDUMA, colección.
BOLARA, bolada, unada, época, periodo.

DAKIKE, daki nonbait.
DAKUSAGU, ikusten duzu.
DAKUSAKEZU, ikusten duzu nonbait.
DAKUSAZU, ikusten duzu.
DARDARA, vibración.
DARQA, darama. (Eroan aditzaren for-ma).
DASTATU, gustado, degustado, probado.
DATEKE, da nonbait.
DATZA, yace, está, consiste. (Eizan aditzaren forma).
DAZAGUT, ezagutzen dut.
DENBORA, denborea, el tiempo. (Zuzen-tzaileak jarritako azentu honek, hitza mugatua dela adierazten du).
DERITZAT, erizten diot.
DERITZATE, deritzaitate, erizten (deitzen) diote.
DEUS, ezer.
DEUSEZTU, deusezatu, ezereztu.
DIEZAZKIOKET, deiskiodaz.
DIREINO, diren bitartean.
DUKE, du nonbait.
DUZUA, duzu + a. (Azken bokal hau, galdeetan ezarzen zaio aditzari).

EDER, edertasunak.
EGITURA, estructura.
EGOTZI, bota, jaurtiki.
EGUN, gaur.
EGUNBIRA, rotación diaria.
EI, omen.
EKAIN, junio.
EKARRI, aportado, aportación.

ENGAIAMENDU, compromiso, engage-ment.
ENTSEIU, esfuerzo, empeño.
ERABAKI SAMARTU, kasik erabaki.
ERABAT, guztiz, zeharo.
ERABATEKO, absoluto, completo, defi-nitibo.
ERDIETSI, lortu.
EROAN, eraman.
ERORI, icausi.
ERORTZE, jauste.
EROSO, cómodo.
ESKUALDE, comarca, región.
ETORRI, inspiración, fecundia.
ETSAITASUN, etsaigo, areritasun.
ETZAN, horizontal.
EZABATU, borrado, desaparecido, efface.

FIDA IZAN fidatu.
FUNTS, fondo, sustancia.

GAINDI, superar. (GAINDITU superado).
GAITZETSI, desaprobado, condenado.
GAUDEINO, gauden (gagozen) bitartean.
GARAITIA, garaipen, victoria.
GREBA, huelga.
GREBALARI, grebari, huelguista.
GUTIESTE, menospreciar, subestimar.
GUZTI, oro. Hitz hau demostratiboen atzean jartzen da, eta haien graduko atzizkiak hartzen ditu. Adibidez: Hau guztia (haur guztior klasikoetan), hau guztiok, hauen guztion, herri haietan guztietan, haur horiei guztioi. (Ikus Lafitteren «Grammaire Basque», 83. horrialdea).

HAATIK, hala ere.
HAGINKA EGIN, morder, mordre.
HAIK, hareek. Haiak (heiek) aktibo, haik (hek) pasibo. (Ikus Lafitteren «Grammaire Basque», 82. horrialdea).
HALABER, así mismo, igualmente, por ejemplo.
HASTAPEN, hasiera.
HATZAMAR, erhi, dedo, doigt.
HAUK, honek. (Hauk aktibo, hauk pa-sibo).
HAUTESKUNDE, bozketa, elección.
HAUTSI-MAUTSI, compromiso.
HERABE, irresoluto, renuente.
HEZITZAILLE, hezle, hezitzaile. Hiru hitz-tarik zein geratuko da garaile euska-ra batuan? Ene ustez, azken biotarik bat gelditu behar litzateke, hausle edo haustaile —eta ez hautsitzaile— geldituko den bezala. (Ikus Altuberen «Observaciones a la Morfología de Azkue», 15 eta 19. horrialdeak).
HEZKETA, hezkuntza, heziara, educación.
HILDO, surco, sillón.
HITXI, hetsi, hertsia.
HOIK, horik, horreek. (Holek aktibo, hoik pasibo).
HORREGATIO, horrela ere.
HORRETAZ, beraz, por consiguiente.
HORTZ, hagin.
HOSTOTZE, horritzatze, cubrirse de hojas.
HOTS, a saber es decir, esto es.
HUNKITU, conmovido, impresionado. (UKITU, tocado).
HURA, ha.

IGURIKAMEN, igurikimen, expectativa.
ILE, ule.
ILEGURI, terciopelo, velours.
ILOBA, nielo, petit-fils.
INDARTUTAKOAN, indartu ondoren, in-dartu eta gero.
IRAGAN, igaro, pasatu.
IRAGATE, igarotze, pasatze. Han barre-na sartu dire, / gaua iragateko; / czen bertze ostoturi / ez zuten gel-ditze (Juanes Etxeberri Ziburukoak, Noelak, 50). Berdin: igate, jasate, ukate, eta abar.
IRAZI, eralgi, xahutu, gastado.
IRENTSI, absorbido.
IRIXTE, heltze.
IRTEN, urten, atera, jaigi.
IRTETEKO (ez irtetzeko), urteteko, jal-gitzeko.
IZARBEL, planeta.

JADANIK, ya.
JARRERA, actitud, postura, posición.
JASATE, soportar.
JAZO, gerta.
JAZOTZE, gertatze.
JOAT (ziat, diat), dut.

KAKARRALDO, escarabajo, scarabée.
KATIGATZE, encadenar, aprisionar.
KAUSITZE, aurkitze.
KISA, gisara, pentzura.
KURAIATU, adoretu, animado.

LAGUNTZA, laguntzea, la ayuda. (Hitz hau mugatua dela adierazten du azen-tuak).
LAPIKOKO, eltzeko, eguneroko ogi.
LEGEZ, lez, bezala.
LEPAPE, samape.
LIMUR, cngatusar, persuadir. (LIMURTU, cngatusado, persuadido).
LUZERA, luzerea, la longitud. (Hitz hau mugatua dela adierazten du azentuak).

MAILEGU, préstamo.
MAIZ, sarri.
MEALARI, minero.
MENDEBALDE, mendebal alde, occiden-to, Oeste.
MUNDUKOEKIKO, en relación con los del mundo.

NABARI, evidente, patente.
NABARITZE, advertir, notar, percibir.
NEHONDIK, inondik.
NON, que.

OMEN, ei.
ONHAR, aceptar. (ONHARTU, aceptado).
ORO, guzti.
OROKOR, general.
OSTARKU, arco iris, arc-en-ciel.
OSTEAN, ondoan, ondoren.
OSTERKO, ondoko, ondorengo.
OSTERA, berriro.
OZEN, sonoro.

PIKOTA, picota (antiguo instrumento de suplicio). Jean pikotara — irse a la nado, irse al traste.
POLITIKA, politika, la política.
POLITIK, politika. (Hitz honek, kasu honetan, galdu egiten du bere A or-ganikoa, hurrengo berebarekin hitz el-kartu bat egiten duelako. Halaxe idaz-ten dute zenbait idazleak. Politik on-dorenak = politikondorenak, sozialist taldea = sozialistaldea, eta abar.
POZARREN, pozik.

PROBLEMA, problema, el problema. (Zuzentzaileak jarritako azentu honek, hitza mugatua dela adierazten du).

SEGA, guadaña, dail.
SEGUR, seguru.
SOLIPSISMO, (so'us ipse), norbera ba-karrik.
SOLO, soro.
SOZIALIST, socialista. (Ikus goian PO-LITIK).

TAULA, tablado.
TILNORE, memento, ordu, garai.

UGAZADA, nagusi, jabe.
UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).
UKITU, ukutu, tocado. (HUNKITU, con-movido, impresionado).
URDIN, azul.

XINGOLA, cinta.

ZALANTZA, duda.
ZAPUTZ EGIN, desamparar, abandonar.
ZEINEN, zein.
ZELAKO, nolako.
ZELAN, zela, nola.
ZEN, que se había. (Zuzentzaileak ja-rritako azentu honek, aditzaren erla-tibotasuna adierazten du).

ZEREN (ETA), ze, pues.
ZEUNDEN, en que estabas. (Zuzentza-ileak jarritako azentu honek, aditza-ren erlatibotasuna adierazten du. Ene ustez, aurreiritzik ez duen edonork ikus dezake azentu honen komenien-tzia. Marka horien faltaz, mik neuk —eta segur nago, irakurle gehienek ere ber-din gertatzen zaiela— sarritan berriro irakurri behar izaten ditut honelako esaldiak, idazlearen esannahia ondo ulertzeko. Azentuak, talin idazkerak eskaintzen dizkigun lagungarri batzuk dira. Beste markak —komak, puntuak, eta abar— onhartu baditugu, zergatik ez azentua? Zergatik gara hain he-rabe? kasu honetarako eta bestetara-ko hain baliotsu izan litekeen argi-garri hori erabiltzeko? Idazleak, au-reritzi gabeko idazleak, dute eran-tzuna).

ZIAN [joan], zuen.
ZIHARDUTEN, que obraban, que se de-senvolvían.
ZIK [jok, dik], du
ZILEGI, licito.
ZINEZ, benetan.
ZORTE, destino.

GALERIA DEL LIBRO

Gotzon Zaballa

Liburudenda
erregalutarako gauzak
Euskal liburuak
Papeteria

EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, núm. 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

Zu bai zarela ona!

Agur, Izaskun!

Jaso dut zure eskutitza. Zain zain egon naiz aspalditxo honetan. Ez zinen lehengo ohiturak galtzen hasiko! Lehen sarriagotan idazten zenuen. Zer kontatu handirik ez duzula diozu. Nire ustez, zer kontaturik beti izaten da. Nori kontatu edukitzea da garrantzizkoa.

Zure azken eskutizetik atera daitekeenez, ez duzu oraindik pertsona edo talde irekirik ezagutu. Beldurrez jokatzeko duzu. Bai eta Xabierrekin zabiltzanean ere. Eta, nire kritiz, hortik hasi behar zenuke. Guztiok behar dugu, geure orijinalitate pertsonala aurkitzen lagunduko digun pertsona eta talde bat. Ez duzua* uste, Izaskun?

Xipi xipitatik beren erara eta komenientziara taxutu nahi izan zaituzte ingurukoek, gurasoek, hezitzaileek.* Pertsona guztiek bezala zenuen zuk ere onhartua izatearen premia, afektibitate eta babesaren premia. Baina, nonbait, gure kulturaren afektibitatea ere irabazi egin behar da, dirua bezala edo beste edozein merkantzia bezala. Eta horrela, horrelako inguru baten azpikerietatik oraindik inmutatu gabe zeundèn* garai haietan, zeure burua saldu beharrean aurkitu zinen.

Gurasoen eta beste hezitzaileen esana egiten zenuen —eta zuk, neskatila xintxo izanki, bete bete egiten zenuen—, «ona zara» esaten zitzaizun, edo, okerrago dena, «zu bai zarela ona!». Besteak, zure neba-ahizpak edo zure lagunak, zu bezain onak ez zirela esan nahiz bezala.

«Xintxo, ona zara» esatean, ez ote zizuten, Izaskun, gero ere horrelakoa izaten jarraitzeko, etiketa bat jartzeko? Psikologia esperimentalak ere ba dio, izakera zerkusi nabarmena duela besteengandik igurikamena.* Hau da, besteek gugandik zer espero duten, hura* edo antzeko zerbait izaten gara. Eta arrazoi handiagoz, besteok geure gaitasunak ditugunean. Hots,* gu haien dependentsian bizi garenean. Haurren kasuan bezala, Eskal Herriaren kasuan bezala. Langile edo baserriar ez-jakinaren kasuan bezala. Etxekoandarearen kasuan bezala.

Honetarako gero, aspaldion buruan darabiladan kezka bat agertu gura nizuko. Ez dakit, zuk zer pentsatuko duzun. Geure asabetatik dakargu noski, gaiari eta situazioari dagokien kritika zientifikaren ordez, erabateko* den geure igurikameneko opai moral positiboak eta negatiboak emateko ohitura. Eta hau perilosa izan daiteke. Eta benetan perilosa da, opai hoietan jartzeko den karga emozional guztia kontuan hartuz gero. Honetara,* beste pertsonak, haien «behinbehineko* jarrera*» bati dagokion baino askoz areago* etiketatzen ditugu. Zer deritzazu, Izaskun?

Gugandik «ontasuna» itxarotean, mailegu* bat bezala egin ziguten ingurukoek, halamoduzko gratifikazio bat ematen zigutelarik. Dirua, lantoki seguru, segurtasun afektiboa, babesa. Jakina, horren guztiorren* ordainez, prestijio eta izen onaren ordainez, geure nortasuna saldu beharrean aurkitu ginen.

Oker ez banago, Izaskun, zure hezitzaileen moral sistemá gauza nahiko akabatua izan da. Zer egin behar ze-

nuen pentsatzen eta erabakitzen, burua nekatu beharrik ez duzu ukan.* Zure eginkizuna, erabakiak betetzean zegoen, nonbait. Horrek, ekintzen zergatikoa eta zertarakoari begiratu gabe, agindutakoa egitera eroan* zintuen. Zerbait egitean ere, zure begiak ondorengo sari edo zigorrean zeuden. Ez ekintzan bertan. Pelotaka, irabazteagatik jokatu zenuen; eskolan, lehenengoa izateagatik ikasiko zenuen. Gratifikazioa, ekintzaren ondoren eta besteengandik zetorkizun. Ekintzan bertan ez zegoen gratifikaziorik, lagunartean ez zegoen atsegirik...

«Zu bai zarela ona!». Agindutakoa xintxo egiten duenari eta hartaz arduratzen ez denari gratifikazio berdina emanez gero, ona izaten jarraitzeko dauden arrazoiek ez dute balio. Eta edozein hezitzailek dakike* hau.

Ez zaizu iruditzen, Izaskun, xintxo direnek, hain xintxo ez direnei ere afektibitate berdina eskaintzen zaiela ikusiz gero, xintxoak izaten jarraitzeko arrazoi gehiegiarik ez luketela? Harako alegia* hark dioen bezala, seme leialaren eritziz, aitaren berarekiko jokabidea ezin daiteke izan seme galduarekikoa bezalakoa.

«Onak» eta «xarrak», «xintxoak» eta «gaiztoak» legegaren, afektibitatearen, ekonomiaren aldetik tratu berdinekoak direnean, «ona izaten jarraitzeko» arrazoiak ezabatu* dira. Azpiko motibapenak interesatuak baitziren, eta konpetitiboak bide batez.

Uste dut, Izaskun, heldu dela zuregan ere balore gehienak zalantzan* jarri dituzun eguna; eta ikusi duzu, gainera, ez dela aski,* «pentsakeraz» aldatzea. Nahiz eta hitzez besterik esan, zeure eta gure nortasuna lehengo dela esaten duzu. Lehengo lepotik dugula burua, lehengo erreakzio eta konplejuak ditugula.

Hala ere, lehendik hona ba dago alde bat, eta hau da: orain garbiago ikusten dugu, maskara hau zergatik jarri dugun eta zertarako. Behartu gaituztelako, heste irtenbiderik ez genduelako.

Hitzetaz ez zara fida.* Eta arrazoiz. Puntu nagusi eta fundamentalenetan, lehengoan jarraitzen baitute, gu egin gintuen gizarteak eta gure nortasunaren bereizgarri nagusienek (bai eta kulturaz lortu ditugunetarikoez ere).

Gaurkoz gai hau utzi egin beharko dugu. Emango dizazu zuk zeure eritzia. Aurrekoan baino lasterrago izan dadila. Udan zer egin behar duzu?

Alfabetatzeaz beste batetan berba egingo dugu. Nahiko problema sortu zaigu aurten honen inguruan.

Beste gabe, goraintziak horkoei, eta laster arte. Zure lagun.

KOLDOK

daude, **dagoz**
didazu, **deustazu**
digu, **deusku**
nizuke, **neuskizu**
zaie, **jake**
zaigu, **jaku**

zaizu, **jatzu**
zeuden, **egozen**
ziguten, **euskuen**
zitzaizun, **jatzun**
zizuten, **eutsuen**